

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldirakaria
2023ko IRAILA · 325 zenbakia

Mallabiko Eskolak 50 urteko ibilbidea





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarren ahotik

Gaia: Koplak.

Arrateko zelaiko

(Entzuteko: www.alboka.es)

Arrateko zelaiko lirixo loria (bis)
handitxik gora dago zerura bidia,
ai, oi, ena zerura bidia.
Arrateko zelaiko lirixo loria.

Eperrak kantatzen du Arrate baillian (bis)
neskarik ederrenak San Pedro baillian,
ai, oi, ena San Pedro baillian.
Eperrak kantatzen du Arrate baillian .

Ederra zera baina, ez zera larrosa (bis)
kolore txuri gorri mundu engaiñosa,
ai, oi, ena mundu engaiñosa.
Ederra zera baina, ez zera larrosa.

Ederrak bi balio onak hiru te lau (bis)
ederra izateak asko balio dau,
ai, oi, ena asko balio dau.
Ederrak bi balio onak hiru te lau.

Goiak arinak eta behiak arinago (bis)
dantzan hobeto daki artajorran baino,
ai, oi, ena artajorran baino.
Goiak arinak eta behiak arinago.

Aupa gaztiok!



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIAK:

Mallabiko Eskola.

LAGUNTZAILEAK:

Igone Amesti,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Manuel Moreno,
Juan Carlos Martín
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Igone Amesti, Jone Arriaga,
Julene Bouzo, Emilio Carral,
Estibalitz González,
Mallabiko Eskola,
Juan Carlos Martín,
Manuel Moreno, Valentin Mugarza,
Ignacio Pérez, Marga Pérez,
Nahia Ruiz Albizuri, Tokikom
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Jone Arriaga Cid · Mexiko

“Mexikarrak oso jatorrak eta adeitsuak dira, laguntzeko prest daude beti”

Beka batekin joan zen Mexikora Jone Arriaga ermuarra, Gobernu Kanpoko Erakunde batean lan egitera. Aurreiritzirik gabe joan zen bertara, eta hainbat gauzek harritu dute, baina izugarri gustura dago, Ermura bueltatzeko gogo barik.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Noiz joan zinen? Zergatik?

Uztailean etorri nintzen Mexikora. Eusko Jaurlaritzako beka bat lortu nuen eta GKE batekin egiten dut lan hemen. Hiritik ordubetera dauden zazpi komunitatetan, hau da, zazpi herritan egiten dut lana, tailerrak emanez.

Non bizi zara orain?

Puebla komunitatean bizi naiz: Heroica Puebla de Zaragoza, hain zuzen ere, Mexiko Citytik nahiko hurbil.

Nola imajinatzen zenuen leku hura?

Egia esan ez nuen ezer imajinatzen. Erabaki nuen ezer ez begiratzea Interneten aurreiritzirik ez izateko,

inolako ideiarik ez sortzeko. Hala ere, pentsatzen nuen jende asko egongo zela eta komunitate gehiago imajinatzen nituen, txikiak, etxe zaharrek eta jende askorekin ere. Hiria, aldiz, ez nuen inola irudikatzen.

Zerbaitek harritu zaitu?

Ume kopuruak harritu nau. Hirian ere, baina komunitateetan ume asko daude! Familia bakoitzeko 4, 5, 6 neba-arreba izan daitezke, eta nagusiek gazteak zaintzen dituzte beti. Deigarria iruditu zait azken finean gure herrian ez direlako hemen adina ume ikusten. Klimak ere harritu nau, Euskal Herrikoaren antzerakoa baita. Egunean zehar, beroa egin arren, ondo egoten da, baina 18:00etan euria hasten da beti:

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

JULEN

JULEN IZARRA
GARRAIOAK

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



goizean inoiz, zaparrada beti arratsaldean!

Zein da janaririk tipikoena bertan?

Janari tipikoena *mole poblanoa* da: oilasko izterra saltsa batekin. Saltsek *chile* mota asko dituzte, *chipotle*, kanela eta txokolatea, besteak beste. Eta denak pikatzen du: berez mina ez bada, pikantea gehitzen diote. Horretaz gain, *chiles en nogada* ere janari tipiko bat da: *chile* handi bat barruan intxaurrak, makatzak eta osagai gehiago dituena.

Bakarrik bizi zara edo etxea partekatzen duzu?

Beste hiru euskaldunekin bizi naiz. Leku berean egiten dugu lan, baina esparru ezberdinetan.

Hizkuntzari dagokionez, gaztelaniatik aparte, beste hizkuntzarik hitz egiten al da komunitateetan?

Lan egiten dudan komunitateetan, nagusiek *náhuatl* hizkuntzan hitz egiten dute. Herri batzuetan ama hizkuntza da, eta umeez ere hitz egiten dute, baina oso gutxik.

Nolako da bertako jendea?

"Ume kopuruak harritu nau: familiak bakoitzean 4, 5 edo 6 nebarreba izan daitezke!"

"Jateko guztiek pikatzen dute: berez minak ez badira, pikantea gehitzen diote"



Oso jatorra eta adeitsua da, beti laguntzeko prest. Lankideak saiatzen dira zu ez mintzen, eta askotan esan behar diezu ikasten zaudela eta mesedez esateko zertan hobetu beharko zenukeen.

Zer egiten duzu denbora librean?

Bada, ez dut denbora libre asko. 8:30ean bulegora noa eta 12:00etan komunitateetara joaten gara. 19:30ean edo 20:00etan heltzen gara etxera. Nekatuta ez bagaude, Ermuan egiten dugun berdina egiten dugu: zerbait hartzera joan. Hemen oso arrunta da *pulquea* edatea. Asteburuan jai daukagunez, hiriburuak eta inguruko herriak ezagutzeko aprobetxatzen dugu.

Zerbait botatzen duzu faltan?

Segurtasun eza sumatzen dut gauetan: 19:00etan ilun dago dagoeneko, eta segurtasuna botatzen dut faltan. Horrez gain, familia, lagunak eta poteoa ere.

Gustura zaude?

Oso gustura nago, eta ez nintzen Ermura bueltatuko. Agian herria nola dagoen ikusteko joango nintzen, eta berriro buelta! Hala ere, urriaren 6an itzuliko naiz.

“Liburua katarsia izan da, bizitzari 360 graduko buelta emateko gogoa”

MARÍA NIEVES GÓMEZ · Idazlea



2022ko abenduan argitaratu zen *Mi particular baile de Sambito*, María Nieves Gómez ermuarraren liburu autobiografikoa. Ermuko anbulatorioko familiako medikua da M^a Nieves, eta azken 15 urteetan Durangon bizi da. Liburu honetan bere bizitzako atal ezberdinei gainbegiratu zorrotza egin die.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta erabaki zenuen zure buruaz idaztea?

2022a urte gogorra izan zen. Hainbat bider ingresatuta egon eta gero, ama hil zitzaidan, eta erabaki nuen niretzat tarte bat hartzea. Etenaldi horretan, ekintzailetasunarekin zerikusia duten taldeekin hasi nintzen lanean, eta proiektu ezberdinak abian jarri nituen, horietako bat, esku artean dugun liburu hau.

Bakarrik ekin zenion bide honi?

Ez, mentore bat izan nuen alboan. Gaur egun oso ohikoa da mentorearen figura: arlo pertsonalean, lan-esparruan edota enpresa-esparruan aurrera egiteko aholkularitza eskaintzen dizun profesionala, alegia.

Zer topatuko du irakurleak zure liburuaren orrietan?

Nire bizitzaren zati batzuk: baldintzatu nauten konplexu fisikoak, garatzeko aukerak murriztu dizkidaten usteak, isiltasun mingarriak... Emozioen


nahasketa handia dago, baina guztiaren gainetik bizitzari 360 graduko buelta emateko gogoa dago: hau izan da nire bizitza orain arte, asko ikasi dut, baina aurrera begiratu behar dut, bizitzak erronka berriak ekarriko dizkidalako, gainditu beharko ditudanak. Katarsi moduko bat izan da, eta liberazioa. Azken finean, kezkatzen zaituzten gauzak ez badituzu azaleratzen, arazoak gero eta handiagoak dira; kanpora ateratzen dituzunean, aldiz, konturatzen zara agian ez direla hain garrantzitsuak. Ezin da norberarengandik ihes egiten egon betirako.

Begiratu bat egin diozu zure bizitza osoari, haurtzarotik hasita...

Bai, aurretik gidoitxo bat egin nuen eta gero ariketa sakona burutu nuen atal ezerdinak gogoratzeko.

Haurtzaroa, familia, gaixotasunak, konplexuak,







masturbazioa, amatasuna... Zein izan da gairik korapilatsuen?

Asko kostatu zitzaidan txikitako beldurrei buruz hitz egitea. Etxean bakarrik geratzeak izugarriko larritasuna eta ikara sortzen zidan, eta bakardadeari nion beldur hori nire bizitzan egon da beti, eta eragina izan du nire garapenaren beste esparru batzuetan ere. Gai hori asko landu behar izan dut terapia ezberdinen bitartez.

Gaixotasunak eta amatasuna ere askotan aipatzen dituzu...

Bai, arazo hormonalak oztopo handia izan dira niretzat; eta bestalde, gauzatu ez den ama izateko desioa dago baita ere. Bi gai hauek berebiziko garrantzia dute,

"Asko kostatu zitzaidan txikitako beldurrei buruz idaztea: Bakarrik geratzeak larritasuna sortzen zidan"

"Bizipenak azaldu eta paperean jasotzeko nolabait biluztu behar zara, goitik behera zabaldu"

"Konturatu naiz aurrera egiteko osasuna dela garrantzitsuena, bizitzeko ilusioa izatea..."

hala ere, hainbat arazo kliniko izan ditut, eta aurre egin diet. Beraz, nire gorputzari eskertu behar diot, zenbaitetan ikaratu nauen arren, aurrera egin duela.

Erraza da norberari buruz hitz egitea?

Bizipenak buruan dituzu, baina horiek azaltzeko eta paperean jaso ahal izateko, nolabait biluztu behar zara, goitik behera zabaldu. Hori da zailena.

Zenbat denbora eman zenuen idazten?

2022ko otsailetik abendura, gutxi gorabehera. Egun batzuk oso emankorrak izan ziren, eta beste batzuk ez hainbeste, baina bukatzeko epea bat jarri nion nire buruari, eta zerbait buruan sartzen bazait ez dut amore ematen.

Kaleratu aurreko egunak gogoratzen dituzu?

Bai, kaleratzeko unea heldu zenean, abenduan, bertigo apur bat sentitu nuen, baina aurrera egin nuen.

Gurasoei, baina batez ere amari eskaini diozu...

Amaren heriotzak eragin zuen nik liburu hau idaztea. Izan ere, ama edota aita joaten direnean, ez dakit ze punturaino ezagutzen dituzten seme-alabak, edo agian guk uste baino gehiago ezagutzen gaituzte. Dena den, nire bizitza laburtzeko beharra sentitu nuen, bere argi-ilunekin, eta oinarrian amari hitz egiten ari naiz: hau da zure alaba, kanpotik ezagutu duzuna, baina barrutik horrenbeste nahaste-borraste izan dituen.

Nola zaude orain?

Gaur egun nire burua maitatzea da nire lana. Nire konplexuek ez daukate lehen besteko garrantzirik, onartu dut gizaki guztiok ezberdinak garela. Eta konturatu naiz garrantzitsuena osasuna dela, bizitzeko ilusioa izatea, baikorra izatea, maitatzea eta maitatua izatea.

DISEINUA

Portadako marrazkia oso deigarria da. Nor da egilea?

Nire lankidea den Ángela Pérez, eta nire bizitzaren fase ezberdinak irudikatzen ditu.

Eta zer esan nahi du liburuaren izenburuak?

Liburuan nire bizitzaren dantza jasotzen dut, horrekin lotu nahi izan dut. Berez, San Bitoren dantza gaixotasun neurologiko baten izena da (Corea de Huntington, alegia). Errespetu handiarekin erabili dut izen hori, baina "Sambito" jarri nahi izan dut zerbait alaiagoa transmititu nahi nuelako, sanbarekin lotutakoa.

Zer nolako harrera izan du zure lanak?

Feedback positiboak jaso ditut batez ere, baina egon dira ere dena gustuko izan ez dutenak. Dena den, ni pozik nago emaitzarekin eta barruko garbiketa egiten ausartu izanagatik. Nire nahia da irakurtzen dutenentzako erabilgarria eta laguntzazkoa izatea. Hori dela-eta, nire helbide elektronikoa jarri dut liburuan, eta nirekin harremanetan jarri nahi dutenek erraz topatuko naute.

la urtebete igaro da argitaratu zenuenetik. Perspektibarekin ikusita...

Esan bezala, pozik nago emaitzarekin. Hori guztxori idatzi behar nuen nire buruaz? Seguruena ez. Baina momentu batean behar hori sentitu nuen, eta

"Feedback positiboak jaso ditut, baina badaude ere dena gustukoa izan ez dutenak ere"

"Nahiko nuke liburua lagungarria izatea, eta beharra daukana nirekin jar daiteke kontaktuan"

sentsibilitate eta errespetu handiarekin idatzita dago, inor ez mintzeko.

Baduzu salmentaren inguruko daturik?

Ez, begiratu ahal izango nuke, baina egia esan nire helburua ez da izan asko saltzea, baizik eta idaztea. Hala ere, hilabete bukaeran Madrileran noa ekintzailetasunarekin zerikusia duen aurkezpen batera, eta liburua eramango dut, publizitate apur bat emateko.

Zure lehen liburua izan da?

Ez, duela zortzi bat urte kontaketa erotikoen liburu batean parte hartu nuen. Valladolideko Miguel de Cervantes Unibertsitatean Sexologiako master bat egiten ari nintzela, aukera eman ziguten ikasleoi guk sortutako kontaketa erotikoei liburu bat osatzeko, eta animatu nintzen. Betidanik gustatu izan zait idaztea, eta ordurako banituen idatzi batzuk prest.

Zein da zure hurrengo proiektua?

Duela egun batzuk *Un sueño por cumplir* liburua argitaratu dut beste emakume batzuekin elkarlanean. Hamabi kontakizun jaso ditugu bertan, gai anitzen ingurukoak. Mentoriaren formula erabili dugu liburu honetan ere, eta Bufete de Escritores taldearen laguntza jaso dugu. Horrez gain, idazten jarraitzeko asmoa daukat. 2023a ez da samurra izaten ari, gaixotasun larri bati aurre egiten ari naizelako, eta ez dut baztertzera aurrerago horri buruz ere idaztea.

Pentsatu duzu inoiz medikuntza lagatzea, eta idazle lanetan zentratzea?

Ez, osasungintza ez dago bere onenetan eta ez da erraza bertan lan egitea, baina oraindik asko daukat emateko esparru horretan. Aldi berean, idazle lanetan jarraituko dut, uste dut nahiko trebea naizela arlo horretan ere.



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa



GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



Mallabiko Eskolak 50 urte

Testua **IGONE AMESTI**

Nicolas Learreta eta Josefina Markinak Udalarri doan eman zioten lursaila. Udalak esker ona adierazteko eskolari Learreta-Markina deitzea erabaki zuten. 1973an ireki zituen atea Mallabiko Learreta-Markina eskolak; eta atea itxi zituzten Goita, Gereaa eta Beranoko auzo-eskolek. Baita herrigunean zegoen eskolak ere. Zengotitakoa bi urte lehenago zarratu zen, 1971n.

Egoera politikoa pil-pilean zegoen garai hartan. Frankismotik zetorren eskolatik gaur egungo Euskal Eskola Publikorako aldeketa ikaragarria izan da. Eskola berria zapaldu zuten lehen ikasleek gaztelera hutsean ikasten zuten. Euskara ikasgai bat zen, Justo Azagirre mallabitarra izan zen hain zuzen euskarako maisua. 1983an D eredia ezarri eta ikasleak bi gelatan banatzen hasi ziren: euskarazkoak alde batetik eta gazteleraazkoak bestetik. 1979an jaiotakoetatik hona denak izan dira euskarazko taldeak.

Eskola berriarekin sexu segregazioa bukatu zen: herriko neska-mutilak gelakide izatera pasa ziren. Auzoetako ikasleentzako garraioa zegoen eta, lehen urtean bazkaria eraman behar izan zuten arren, denbora gutxira jangela erabiltzen hasi ziren. Eskola eskaintza ere aldatu da: hasierako ikasleak 1. mailatik 8. mailara arte zeuden eskolan; gaur egun, bi urteko gelatik 6. mailara.

Eskolaren sorreratik hona maisu-maistren eskuhartzea erabat aldatu da. Eskolako lehen ikasleek gogoan dituzte irakasle batzuk ezarritako zigorrak, baita pairatutako irainak eta tratu txarrak ere. Askok gogoratuko dute maisu-maistrek ikasleen aurrean tabakoa erre eta alkohola edaten zutela. Gaur egun pentsaezinak izango lirateke horrelako jarrerak!

50 urte hauetan hainbat hezkuntza legek zehaztu dute ikasleek eskola bukatutakoan lortu beharrekoa. Garai batean ikasleek ezagutza lortu behar zuten; gaur egun ordea gaitasunak garatu behar dituzte.

Hainbat metodologiak, liburuk eta aldizkarik markatu dute ikaste-prozesua: hasierako ikasleek gogoan dute *Kili-kili* aldizkaria, euskaraz idatzi eta irakurtzen ikasteko metodoa; beste batzuk *Un barco cargado de...*, gazteleraazko poesia, ipuin eta esaerak biltzen zituen testu-liburua. Hainbat belaunaldik proiektuka jardun zuten; beste batzuk Txanelarekin hazi ziren. Gaur egun eskolak STEAM eta Eleaniztasun proiektuetan



"Eskola berriarekin segregazioa bukatu zen: herriko neska-mutilak elkarrekin ikastera pasatu ziren"

parte hartzen du.

Eskola fisikoki eraldatu eta egungo premietara egokitzen joan da: gelak eraldatu, psikomotrizitate gela eta gimnasioa sortu, sarrerak aldatu eta egokitu dira... Baliabide aldetik aldaketak nabariak izan dira: altzariak, ordenagailuak, pantailak, fotokopiagailuak...

LANGILEAK

Badaude hainbat maisu-maistra belaunaldi ezberdinek gogoratzen dituztenak: Don Matias, Doña Concha, Justo Azagirre, Virginia Bakedano, Ana Erdoiza, Begoña Arriaga, Rosa Mintegi, Bego Belar, Garbiñe Uriarte, Susana Lizundia, Miriam Aliende, Estibalitz González, Maribi Urrutxurtu, Eli Areitioaurtena, Ainara Mallagarai, Aimar Goitia...

Maisu-maistrak ez ezik, hainbat ikaslek bertan aritutako langileak ere badituzte akorduan: Begoña, Leonor eta Gemma sukaldean, Leon furgonetan, Rosi, Ascen eta Nekane jangelan, Lurdes eta Mari Carmen garbiketan... Ezinezkoa da denak bertan izendatzea.



AMALUR
FISIOTERAPIA

6 8 8 6 1 9 8 9 6
zeharkale 12 bajo
4 8 2 6 0 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675



ANTIXIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

☎ 943 576 124 🕒 10.00 - 13.30
📞 747 453 607 🕒 15.30 - 19.30

📍 Antxitxiketan ✉ Info@antxitxiketan.com

12 MALLABIAN ZER?

IKASLEAK

50 urte hauetan 655 bat ikasle pasatu dira eskolatik. Talderik kopurutsuena 1973ekoa izan zen: guztira 25 ikasle. Kintadarik txikiak ordea 1993, 1988 eta 1983koak izan ziren, 4 ikaslerekin. Aipatzeko da, 1960ko lau ikasle ohien ilobek eskolan dihardutela: hirugarren belaunaldia eskola berean ikasten!

URTEURRENA

Eskolako urteurrena dela-eta ekintza ezberdinak antolatuko dira. Alde batetik, eskolak ikasle ohiak gonbidatuko ditu gaur egungo ikasleekin batera eskolaren historiaz eta 50 urte hauetan izandako aldaketaz hitz egitera. Horretaz gain, lehiaketa bitartez Eskolako logotipoa berriztuko da.

Ikasle ohiak ere parte hartzen dihardute urteurrenaren inguruan: eskola sarreran horma-irudia marraztuko dute, eskola abestia eta koreografia sortu dute, eta dantzaren bideklipa grabatzeko asmoa dute.

Bestetik, hainbat gurasok 50. urteurrena ospatzeko ondorengo jai egitaraua antolatu dute:

Urriak 20, ostirala

19:00etan, parkean, bertsioko kontzertua.

Urriak 21, larunbata

11:00etan, eskolan, hasierako ekitaldia: zuhaitz-



landaketa, dantza eta bertsoak. Ate irekiak eta argazki erakusketa. Frontoian, umeentzako jolasak.

13:00etan, trikitilarien kalejira parkera. Eskolako abestiaren zuzeneko aurkezpena eta, ondoren, buruhandiak.

15:00etan, frontoian, bazkaria (tiketak salgai ostiralero frontoian, 18:00etatik 20:00etara. Azken eguna, urriak 13). Ondoren photocalla-a, umeei aurpegiak margotu eta txokolatada.

19:00etan, parkean, DJ Xaibor.



"Mallabitarrok egina" ekimenaren ediziorik musikarena egingo da

Udazken sasoirako "Mallabitarrok egina" ekimena soinu ederrez jantzita dator. Berbalagunek antolatzen duen ekintzaren IX. edizio honek herriko musika eta musikariak hartuko ditu hizpide, "Mallabia musika ere bada" izenburupean. Urriaren 7an ospatuko da, zapataz, eta zuzeneko musikaz gozatzeaz gain, goizean zehar hainbat musikariren nondik norakoak ezagutzeko beta izango dute ibilbidean parte hartzen dutenek. Izena emateko, Kultur Etxearekin edo 663070492 telefonoarekin kontaktuan jartzea besterik ez dago.

Ioritz Gisasolak pentatloia finlean parte hartu zuen


Irailaren 23an, larunbata, Euskal Pentatloia seigarren edizioaren finala burutu zen Azpeitiko zezen plazan, eta bertan Ioritz Gisasola "Zelai IV" mallabitarrok parte hartu zuen. Bere txandan bigarren geratu zen Ioritz, baina bigarren txandako kirolariak parte hartu eta gero, Ioritz bostgarren posturaino jaitsi zen. Irabazlea Andoni Iruetagoiena "Izeta VI" a izan zen, hirugarren urtez jarraian. Bestalde, nesken finala bertan behera geratu da aurtan, parte hartu behar zuten bost emakumeetatik hiruk arazo fisikoak izan dituztelako.

Mallabitarrok eta ermuarrak izan ziren Sorginen Lasterketan

Hilabete hasieran izan zen Sorginen Lasterketaren hamaseigarren edizioa. Hasiera eta helmuga Atxondoko Axpe auzoan izan zituen, eta Anboto tontorretik igaro zen. Guztira 21 kilometro egin behar izan zituzten parte hartzaileek 1.700 metroko desnibel positiboa gaindituz. Durangaldeko mendi korrikalariak bikain aritu ziren, tartean gure herrietako mutilak. Iñigo Pradera mallabitarra nabarmendu zen bigarren postua lortuz, eta ez zen urruti ibili bere herrikidea den Irazu Antxia, helmugara bosgarren iritsi zena. Xabat eta Unai Uzuriaga anaiek eta baita Gartxot Mugarzak ere parte hartu zuten. Ermuko korrikalariak ere fin aritu ziren, tartean Oier Viteri eta Josu eta Iker Araiztegi anaia.

Banakako frontenis txapelketa jokatzeko ari da

Mallabiko Udalak eta Mallabia FTK antolatua, Banakako Frontenis Txapelketa mistoa jokatzeko ari da irailaren 22tik aurrera. Irailaren 29an eta 30ean bigarren fasea jokatu da (taldeen liga) eta urriaren 7an txapelketa azken fasean sartuko da. 29ko partida, ostirala, 19:00etan jokatu da frontoian; 30ekoa eta urriaren 7koa, larunbatak, 9:00etan hasiko dira. Irabazleak txapela jasoko du, eta bigarren sailkatuak, aldiz, garaikurra.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALIZABIAE - OIZAGARRIAE



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Santiago plaza. Eliza pareko arkupe zaharren gaineko eraikinean, aspaldiko sasoieta eskolak eta herriko Kontzejua egon ziren. Argazkilaria: Marga Pérez.



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA



2023-24
Ikasturtea
Matrikula zabalik

MAILA GUZTIAK
A1 - A2 - B1 - B2 - C1

Ordutegiak:
9:30 - 11:30 | 16:00 - 18:00 | 18:00 - 20:00

HABEren azterketa ofizialak
maiatzean eta urrian

16 urtetik gorakoentzat
Dirulaguntzak

BULEGO ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era

Teresa Murga Eraikina – Goienkale, 4-3. Solairua – 48260-ERMUA
Tfnoa.: 943170925
euskaltegia@udalermua.net



Fundatzaileen semeak: Josetxo Ormaetxea ezkerrean eta Moises Guridi lehengusua eskuman.

Engranajes Ureta, 75 urteko ibilbide oparoa

75 urte bete ditu aurtan Engranajes Uretak, Gipuzkoa Etorbidean kokatuta dagoen lantegi ezagunak. Jose Ormaetxea eta Pablo Guridi ermuarrek 1948an sortutako tailer txikiak ibilbide luzea egin du, eta haren berri eman digute sortzaileen semeek, Josetxo Ormaetxeak eta Moises Guridik, hain zuzen ere.

Noiz sortu zen Engranajes Ureta?

1948. urtean sortu zen, Jose Ormaetxea eta Pablo Guridi koinatuen ekimenez. Garai hartan, makina-erremintaren sektorea oso indartsua zen, eta egiten ziren makina horiek mikromekanika eta engranaje asko behar zituzten. Armeria Eskolako irakaslea zen Josek ondo zekien hori eta, inguruko enpresen beharrak asetzeko, Pablo Guridi senidearekin batu zen. Ordurako, bai batauk zein besteak tailertxo bana zituzten, baina haiek utzi eta Engranajes Ureta sortu zuten elkarrekin, Guridiren emaztearen eta Ormaetxearen jaio-tetxea zen baserritik izena hartuta. **Zein izan zen Engranajes Uretaren lehen kokapena?**

1948tik 1979ra Ibai-Ondo eraikinaren etxabea egon zen, Sallabenteko

ermitatik gertu, izatez Zaldibarren. 1948an altxatu zen eraikin hura, Ormaetxearen emazte Isabel Agirreren familiarena zen landa-eremu batean. Hasieran langile bakarra izan zuten: Mallabiko Aldasolo baserriko Rufino Arregi, haien lehengusua. Garai hartan familiako enpresa zen, zalantza barik. Guridi bera ere bertan hasiko zen lanean; Ormaetxeak, aldiz, Armerian jarraituko zuen hasiera batean, eta Eskola horretako zuzendari izatera ailegatuko zen.

30 urte eta gero, lekuz aldatzeko unea heldu zen...

Bai, 70. hamarkadan ekonomiak salto bat eman zuen, estatuko bigarren eta hirugarren Garapen Ekonomiko eta Sozialeko Planak hauspotuta. Eibarko eta Ermuko enpresa batzuk kanpora joan ziren,

hemen lur gutxi zegoelako enpresak handitzeko (Gasteizera batzuk, beste batzuk Mallabira...), autogintzako lantegiak sortu ziren... Herria bera ere asko aldatu zen, eta 5.000 edo 6.000 biztanle izatetik 17.000 izatera pasatu zen. Uretak ere espazio handiagoa behar zuen, eta familiak zeukan beste lur-eremu batean eraikin berria altxatu zuten, Gipuzkoa Etorbidean, egungo kokapenean. Hala ere, Ibai-Ondoko egoitzan ere lanean jarraitu genuen urte batzuetan.

PUNTAKO TEKNOLOGIA

Uretaren zeregina ere aldatu zen?

Leku aldaketarekin batera, enpresa mikromekanikan espezializatu zen, hau da, engranaje txikietan. Garai hartan ez zegoen horrelako teknologia inguruko enpresetan, eta horrek bereiztu gintuen. Bestalde, prozesu osagarriak gehitu genituen, gure lanari kalitatea eransteko.

Teknologian inbertitzeko garaia izango zen ere...

Bai, 1986an, esaterako, Pfauter 150 makina erosi genuen: punta-puntako teknologia. Inbertsio handia izan zen, baina kalitate handia eskaintzen zuen denbora laburragoetan, kargagailua zeukalako: nolabait, artisau-lana egitetik modu automatikoan lan egitera pasatu ginen. Makina horri esker Uretak ospea hartu eta nabarmentzen hasi zen, eta merkatu berrietara heltzeko aukera eman zigun. Duela urtebete baino gutxiago erretiratu dugu Pfauter 150 makina hori.

"Engranajes Uretaren nortasunaren baitan dago herriko enpresa izatea, bertako langileekin"

Noiz eman zenuten hurrengo salto kualitatiboa?

Handik gutxira. 1990etik aurrera, piezaren prozesu osoa gure gain hartzen dugu eta, horri esker, bezeroaren aholkulari eta bidelagun bihurtzen gara prozesuaren hasieratik bukaerara arte. Bestetik, 2000. urtean Gipuzkoa Etorbideko erai-kinaren alde berria eraiki genuen. **Ze esparrutan erabiltzen dira zuen engranajeak?**

Mota guztietako gailuetan dira beharrezkoak: industria aeronautikoan, elektromedizinan, automatismo eta robotikan, vending makinetan, igogailuetan...

Eta zein herrialde taraino bidaltzen dituzue?

1990. urtearen inguruan hasi ginen esportatzen, baina 2000tik aurrera bolumena nabarmen handitu zen, euroa indarrean sartzearekin batera. Gaur egun, gure produkzioaren %50 atzerrira bidaltzen dugu, batez ere Frantziara. Espainian erreferentia gara gure arloan, eta Europan ere erreferente izan nahi dugu.

Zeintzuk dira Uretaren bereizgarriak?

Alde batetik, zaintza teknologikoa burutu izan dugu beti. Bestalde, Jose Ormaetxearen oinordetza izan da gauzak oso ondo egitea, makinak zaintzea, eta tresneria, erremintak

eta instalazioak garbi eta txukun izatea. Azkenik, besteengandik nabarmentzen gaitu kalitate handiko sektorearentzako egiten dugula lan.

Nor egon da fabrikaren gidaritzan azken urteetan?

2000. urtean, Jose Ormaetxearen semeak diren Josetxo eta Maximo Ormaetxeak hartu zuten zuzendari-kargua. Josetxo jubilatua eta gero (2018an), plan estrategiko berria egin genuen, eta Engranajes Uretaren gobernuak familiarena izaten jarraitzen duen arren, kanpoko kudeatzaile baten eskuetan utzi genuen enpresaren gidaritzak. Ordutik, enpresa %80 hazi da.


Langile gabe ezin lanik egin...

Bai, ezinbestekoak dira. Gaur egun 40 langile inguru gara, eta erdia pasatxo ermuarrak dira. Enpresaren nortasunaren baitan dago herriko enpresa izatea, herriko langileekin eta herritarrentzako ezaguna, eta nahi dugu horrela izaten jarraitzea.

UNE GAZI-GOZOAK

75 urteotako gertaerarik pozgarriena aipatzekotan...

Ibilbidea bera: gurasoek sortutakoa mantentzeko eta garatzeko gai izan gara. Hori da pozgarriena. Egun, familiako hirugarren belaunaldiak jardun du enpresan, tartean, Moises Guridiren semea den Paulo Gu-



ridik eta Josetxo Ormaetxearen iloba batek. Belaunaldi berriaren garaia da, eta norabide zuzenean goaz.

Garai zailak ere egongo ziren...

Bai, 2008an mundu mailako krisialdia egon zen, eta enpresa asko itxi ziren. Guk sektore anitzetarako egiten dugu lan eta, haietako batzuen jarduera bertan behera geratu zen arren, besteei esker aurrera atera ginen. Bestalde, Maximoren heriotza 2020an zartako handia izan zen guztiontzat.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Plan estrategiko bat egin berri dugu (inbertsio pakete handia barne duena), enpresa asko hazi da eta momentu onean gaude: ez hazten jarraitzeko, baizik eta orain arte lortutakoa egonkortzeko. Gustura gaude gauden lekuan, eta hemen jarraituko dugu.

75 urte hauek nolabait ospatuko dituzue?

Bai, hainbat ekintza burutuko ditugu urriaren 6an. Goizean instituzioei begirako ekitaldia egingo dugu, eta gonbidatu ditugu Ermuko alkatea, Ekonomia Sustatzeko Saileko diputatua, Debegesa eta FVEMko ordezkariak... Arratsaldean, aldiz, langileei, euren familiei eta erretiratutako langileei zuzendutako festa txikia antolatu dugu: ate irekiak, fundatzaileei omenaldia, musika eta sorpresaren bat.





Eskerrik asko txikurizaleak!

Antxitxiketaneak eta Euskal Birusak eskerrak ematen dizkizue Txikurixan jardun duzuen guztioi: lokala utziz, txosna atontzen lagunduz, berau apainduz, txandak eginez, berauek antolatuz, bokatak eta tortillak gertatuz, garbitasunaz arduratuz, guztia batuz...

Luis Migel, Mari Feli, Juan Mari eta Felix Aranburu Zenarruzabeitia, Alberto Belar, Hegoi Belar, Carlos García, June Arguello, Miren Samper, Itziar Zenarruzabeitia, Nerea Redondo, Xare Manzisidor, Ane Izagirre, Lukene Piñeiro, Naroa Sevilla, Julen Gastón, Izaro Narbaiza, Oier Beitia, Miren Recio, Koldo Narbaiza, Alazne Goikoetxea, Ainhoa Cruz, Martzel Gorritxategi, Peio López, Nerea Sarrugarte, Ramón Redondo, Egolek elektrizitate-denda, Naroa Beitia, Aitzol Lejardi, Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Jone Redondo, June Alfageme, Igone Lizundia, musinfre, Eneritz Arriaga, Fran Carrascosa, Nerea Gimeno, Libe Solozabal, Paule Gorritxategi, Maitane Mugerza, Leire Gorritxategi, Danel O' Callaghan, Urko Vivian, Iker Gómez, Manex González, Mikel Madarieta, Arantza Cañamares, Nuria Morales, Gus Blanco, Idoia Astarloa, Bea Narbaiza, Nerea Alvarez, Iñaki Lazkano, Eider Aranburu, Montse González, Janire Goenaga, June Madariaga, Anne Erauskin, Imanol Urreta, Julen Molinilla, Sandra Martín, Alaitz Fernández, Josu Cruz, Jabi Vidal, Jose Santos, Juanjo Solozabal, Maite Askasibar, Alex Solozabal, Paul Yarza, Natalia Cabana, Aitor Jauregi, Alex Alvarez, Eneko Goikoetxea, Beñat Mallabia, Ainhoa Cedeño, Marta Berzosa, Jon Matey, Andoni Santamaria, Nora Gastón, Felix Cuadrado, Jazone Izarra, Alicia Lorenzo, Juan Fernández, Telmo Fernández, Libe Cuadrado, Jone Cuadrado, Ziortza Zelaia-Zugadi, Nekane Bilbao, Lorea Perosanz, Irantzu Barrondo, Irati Yarza, Nahia Ruiz, Amaia Sangroniz, Lukene Piñeiro, Irune Basagoiti, Sara Cano, Ane Pérez, Libe Garitagoitia, Amaia Izagirre, Josu Gómez, Aitor Arrizabalaga, David Elejalde, Amets Recio, Unai Hierro, Martin Solozabal, Ane Rodríguez, Leire Martínez, Xabier Matey, Maialen Asenjo, Maddi Figueras, Itziar Unanue, Carmen Solozabal, Arantza Totorika, Irati de Dios, Iñigo Vivar, Maria Ormaetxea, Josune Barruetabeña, Karmen del Río, Aroia Lejardi, Eider Gisasola, Piedi Izagirre, Gaizka Areitioaurtena, Dorleta Vidal, Marines Txurruka, Arantza Barruetabeña, Unai Rodríguez, Manuel Moreno, Igone Amesti, Nerea Berriozabal eta Estibalitz González.

Eta zelan ez, bertaratu zareten herritar guzti-guztiori, Txikurixa zuen errondatxoan sartzeari esker bideratuko ditugun egitasmoak hauspotzen lagunduko diguzuelako!

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)


www.ferreteriaanboto.es

Pilotarien omenezko estatua jarri dute frontoian



Ermuko Udalak Santixauetan inauguratu zuen frontisaren hegalean herriko pilotari guzti-guztiak omendu nahi dituen estatua. Zesta-punta jokalaria bat irudikatzen du eta modalitate horretan zein eskuz, palaz eta erraketaz aritu izan diren andrazko zein gizonezkoak aitortu gura izan da, "Ermua" izena munduko bazter urrunetaraino zabaldu duten ehundik gorako kirolari profesionalak akorduan. Brontzean egina dago, galdutako argizariaren teknika erabiliz; Lourdes Umerez artistak modelatu du eta Eibarko Alfa Arte enpresan urtu da.

Txabi Arnalen ipuin-liburu berria kalean da



Gasteizen finkatuta dagoen Txabi Arnal idazle ermuarrak bere enegarren liburua argitaratu du, *Gora gure alkate jakintsua* izenburupean. Liburuaren orrietan garatzen den istorioan, arazo larri baten aurrean herritarrek alkatearengana jo

eta, konponbidearen bila, arazo bat bestearen gainean pilotuz doakie. 8 eta 10 urte bitarteko gatzetxoei zuzenduta, testua beste behin Edu Zelaieta idazlearekin batera sortu du, "lau eskutara" ermuarraren hitzetan. Mikel Santos "Belatz" ilustratzaile nafarraren irudiz apaindu dute lana.

Gazte Topagune Sozialistara joateko autobusak antolatuko dira Ermutik

Urriaren 11tik 15era Gazte Topagune Sozialista burutuko da Atarrabia eta Burlatan, Gazte Koordinadora Sozialistak eta Ikasle Abertzaleak antolatuta. Larunbatean burutuko diren ekintzetan parte hartu nahi duten ermuarrek autobusa izango dute joan-etorria egiteko. Urriaren 7an informazio-puntua jarriko da Ermuan, eta horrez gain izena emateko aukera egongo da Infreñu tabernan edota 675 129 010 telefonora idatziz. Irteera bazkal ostean izango da, eta itzulera kontzertuak bukatutakoan, igandeko 6:00ak inguruan.

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, 1.8 pab.
Telefona 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Korrinalde plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi-denda Tailor preciosa Edoji denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com


hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Asteunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik

Komentukua z/g. 943030527

Igor Astarloak Munduko Txapelketa irabazi zueneko 20. urteurrena izango da



2003ko urriaren 12an, Kanadako Hamilton hirian, Igor Astarloa ermuarrak Munduko Errepideko Txirringularitza Txapelketa irabazi zuen, helmuga bakar-bakarrik zeharkatuz. Ostadarraren klub selektoan betirako sartu zen Santa Ana auzoko mutila, lagun batek esana dion bezala "munduko txapelduna betirako zara"-eta. Hurrengo denboraldi osoan ostadarraren zazpi koloreen maillotarekin korritzeko ohorea izan zuen eta ate asko zabaldu zitzaizkion: talde desberdinen proposamenak eta kontratuak ugaritzea, ekipoaren beraganako konfiantza areagotzea... Konpromisoek ere gora egin zuten: aurkezpenak, elkarrizketak, han-hemenkako lasterketetan korritzeko gonbidapenak... Ordukoak eta umetako ametsetako bat egia bihurtu izanak irribarrea ateratzen dio oraindik, eta beti aterako dio.

Gazteek 20 euroren truke ikasi dezakete euskara

Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza-lerro berria jarri du martxan 16 eta 18 urte bitarteko gazteek C1 maila prestatu dezaten. Parte hartu nahi dutenek C1B2 maila izan beharko dute aurretik, eta %75eko asistentzia izan beharko dute gutxienez. Ikastaroak urritik ekainera burutuko dira, astean bi egunez, lau egunez edo bost egunez. Informazio gehiago behar dutenek Kaltxango AEK Euskategira jo dezakete (Zearkale 16), 943 17 19 40 telefonora deitu edo kaltxango@ae.eus helbidera mezua idatzi.

Iraileko lehen asteburuan burutu zen XVIII. Folkez Blai lehiaketa

XFanekaes talde valentziarrak irabazi du aurtengo Folkez Blai lehiaketa, eta horri esker 3.000 euro jaso ditu. Haren herrikide den Klezmerama taldea, berriz, bigarren postuan sailkatu zen, eta 1.500 euro jaso zituen. Sarituez gain, honako taldeek jo zuten plazan lehiaketa horren barruan: Tor galiziarak, Olmo nafar-valentziarrak, Eva Amieva kantabriarra eta Negra Cucaracha euskaldunak. Lehiaketatik kanpo jo zuten Kroke talde poloniarak, Kuttunek (iazko irabazlea), Euskelgak, Bentazarreko Mutiko Alaiak-ek, Foularedak eta Ermuko Alboka Musika Eskolako trikitilariak, herriko txoko ezberdinetan.

Prest daude Jabekuntza Eskolako jarduerak irailetik abendura arte

Emakumeen Topalekuak eta Ermuko Udalak ia 20 jardueraz osatutako egitaraua prestatu dute datozen hilabeteotarako. Alde batetik, gai anitzen inguruko 11 tailer burutuko dira ("Eta non daude emakume artistak? Ezagutu dezagun beste historia!", "Garapen pertsonala genero-ikuspegitik", "Emakumeak korrika Ermuan. Korrika egitera elkarrekin irten"...). Bestalde, hiru hitzaldi entzuteko aukera egongo da, ondare artifizialaren, kultura-ondarearen eta indarkeria matxistaren ingurukoak. Horrez gain, erakusketa, jardunaldi eta zineforum bana egongo dira. Ekintzaren batean parte hartu nahi dutenek alde aurretik eman beharko dute izena 943 17 10 30 telefonoan, igualdad@udalermua.net helbidean, edo Emakumeen Etxean bertan (9:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era).



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOIA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Txalaparta
ABERNA


Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299

San Martin Azokaren prestaketa lanak aurrera doaz



33. aldia da eta... Kristorena izango da! Beste urte batez ate joka dugu San Martin Azoka, gogotsu, koloretsu, zaratatsu, zaporetsu... eta, Santuaren bedeinkapenarekin, izan dadila eguzkitsu! Beronen egun berean ospatuko da aurten, azaroaren 11n, eta Euskal Birusa elkarteak buru-belarri dihardu prestaketa lanetan, herriko hainbat talde eta erakunde desberdinekin elkarlanean. Familian, bikotekidearekin, bakar-bakarrik edo lagunarte ederrean izan, merezi du kukutxo bat egitea Azoka zabalduta egongo den bost guneeetan zehar. Zer dastatu, zer etxeratu eta zertaz gazatu ez da faltako!

Julene Bouzo podiumera igo da beste behin



Gorako jauzia diziplinan trebatua dagoen Julene Bouzo ermuarra, Durangoko Bidezabal Atletismo Taldearen partaide dena,

bigarren aldiz igo da podiumera aurtengo denboraldian. Azken hau Tarragonan izan da, bertako pistetan uztailen jokatu tako 23 urtetik beherako en Espainiako nesken 38. Txapelketan brontzezko domina lortu baitzuen, 1.72 metrotik gorako langaren gainetik pasatu ostean. Marka honi esker, seigarren urtez jarraian igo da Bouzo podiumeko kutzara.

Tokikomek EiTB Saria jaso du Gasteizko Festival jaialdian

Euskal Irrati Telebistak Tokikom taldeari eman zion 'EiTB Saria', Gasteizko Principal Antzokian egindako itxiera galaren barruan, irailaren 9an. Tokikomek Euskal Herri osoko



euskarazko 78 toki komunikabide batzen ditu, tartean *Drogeteniturri* aldizkaria. Sariarekin, EiTBk Tokikomen hamar urteko ibilbidea nabarmendu nahi izan zuen, eta euskal esparru komunikatiboaren alde egindako lana aitortu. Tokikomeko zuzendari Alaitz Artolazabalek eta presidente Iban Arantzabalek jaso zuten saria.

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ileapaindegia

Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

688819336



berezietarako. Proposamena egin, eta behar dutenei laguntza eskaini, esaterako, oharrak itzultzeko.

Aurtengo hau ez da Euskal Birusak proposamen hori egin duen lehenengo aldia, duela zenbait urte martxan ipini zuen Berbatruk egitasmoaren atal bat horixe baitzen: establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea, alegia. Eta ez da azkena izango, aipatutako egitasmoa berraktibatzeke erabakia hartu baitu euskaltzaleen elkarteak, esaterako, merkealdietan, gabonetako kanpainen...

Dendei eta tabernei egiten zaien proposamena kontuan hartzen den, hau da, eragina duen edo ez jakiteko, gutxieneko jarraipena egin behar da, eta egin, egin da. 2023ko udako ohar bereziei dagokienez, identifikatu diren 90 establezimenduetako 32tan erabili da euskara, hau da hirutik batean. Denda eta taberna horiek euskararen erabileran egiten duten ekarpena eskertzekoa da, eta Euskal Birusa elkartetik saiatuko dira hurrengo kanpainen gehiago izan daitezen proposamenak eginez eta behar dutenei laguntza eskainiz.

Euskal Birusak laguntza eskainiko du saltokietako oharrak euskalduntzeko

Santixauetan eta udako oporretan hainbat dendarekin eta tabernarekin jarri da harremanetan Euskal Birusa Elkarteak, eta identifikatutako saltoki horietatik heren batek izan du kontuan euskara bezeroekiko idatzizko komunikazioetan.

“Ermuko dendetan eta tabernetan bezeroentzat egiten diren idatzizko oharrek, ordutegiek, eskaintzek, prezio zerrendek, merkealdiek... establezimenduaren “hizkuntza

paisaia” osatzen dute —azaldu dute Euskal Birusa Elkarteak arduradunek—. Hizkuntza paisaia hori Ermuko kaleena ere bihurtzen da, eta ermuarren erabileran eragiten du”.

Horiek horrela, eta Euskal Birusaren helburua euskara Ermuan zabaltzea denez, dendei eta tabernei ofiziala eta haien bezero askoren hizkuntza den euskara komunikazio horietan kontuan hartzeko proposamena egin zuten Elkarteak Santixau jaiak eta udako oporren komunikazio

Hiru Txikiak lasterketa burutu da irailean

Urko, Oiz eta Egoarbitza mendiak zeharkatzen dituen proba honen bigarren edizioan 42 kilometroko traila, gazteentzako 12 kilometroko mendi-lasterketa eta martxa burutu dira. Proba hau Bizkaiko Mendi Lasterketen Ligan sartu da aurren, eta ermuar eta mallabitar ugari bildu ditu.

Testua **DORLETA VIDAL**

Emilio Carral, Richard Medina eta Miguel Ruido kirolari ermuarrek sustatutako ekimen hau hainbat zatitan banatu da, eta berritasun ugari izan ditu aurren. Alde batetik, 42 kilometroko traila Bizkaiko Mendi Lasterketen zirkuituren baitan egon da, eta bertan 263 lagunek eman dute izena: 226 mutilek eta 37 neskek.

Mutulen atalean, 159 lagunek bukatu zuten lasterketa, 7 denboraz kanpo heldu ziren, 4 erretiratu ziren eta 56k ez zuten parte hartu. Guztira, 94 ermuar egon ziren parte-hartzaileen zerrendan, baina horietatik 21ek ez zuten parte hartu; bestetik, 7 mallabitarrek parte hartu zuten. Irabazlea Tarragonako Víctor del Aguila izan zen (3:45:10), lehen ermuarra Julen Gaston (4:12:04) eta lehen mallabitarra Eneko Garitagoitia (4:35:56).

Nesken kategorian, 25 lagun heldu ziren helmugara, 2 erretiratu egin ziren eta 10ek ez zuten parte hartu. Zortzi ermuarrek eman zuten izena, eta guztiek korritu zuten, hala nola izena eman zuen mallabitar bakarrak ere. Irabazlea, Oihana Kortazar elgetarra izan zen (4:01:39), lehen mallabitarra Lorea Totorica (5:02:21), eta lehen ermuarra Ainhara Garrido (5:52:14).

Nesken atalean Irene Sarrionandia debarra nabarmendu behar da, 74 urterekin traila hasi eta



Lasterketa bukatu eta gero, helmuga zeharkatu zuten antolatzaileek. Ezkerretik hasita, Emilio Carral, Richard Medina eta Miguel Ruido.

bukatu zuelako (7:41:18).

15 eta 17 urte bitarteko gazteentzako trailan, 55 parte-hartzaile egon ziren: 47 mutil eta 8 neska. Irabazlea Julen Dobarro mendararra izan zen (1:07:55), eta lehen ermuarra Hegoi Vega (1:34:17). Nesketan, Muskizko Nahia Pombo gailendu zen (1:23:47) eta Irati de Dios izan zen lehen ermuarra (2:17:50).

Horrez gain, 42 kilometroko martxa burutu zen aldi berean, eta bertan 250 lagun inguruk parte hartu zuen. Antolatzaileek 180 boluntarioren eta hamaika babesleren laguntza jaso zuten proba behar bezala burutzeko, eta parte-hartzaileek antolakuntza goraiatu zuten, tartean eskarmentu handia duen Oihana Kortazar mendi-korrikalariak.


**OSASUNA • ESTÈTICA
EDERTASUNA**

Marfil

Goienkale 12 *Illegaindegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua
zarbitzeko konketa



Probaleku z/g
(ERMUA)
**Pintxoak
Razioak
Kaxolak**
**Plater konbinatuak
Ogitartekoak**
699 292 043
636 549 154

Herga tabernia




Zubiaurre 4an kokatuta, Torre Lobiano edo Antonatxa modura ezagututako jatorrizko eraikina 1957an bota zan. Haren orubian eta erreka gainian egindako etxe-multzua 1959an amaitxu zan, abuztuan 17an eskrituratuz. Banco de Vizcaya izan zan lehelengo eta Marina Villares botikarixiak banketxeari erosi zotsan, farmazia bertan kokatzeko asmoz, Zubiaurren jarri baeban gero. 1981. urtian tabernia ipini eben Juan **HER**nández eta Charo **G**allardo andra-gizonek, bixon abizenen konbinaketian Herga izena emonaz.

Banketxian kutxa gotorra, diruok gordetzeko "kaja fuertia" sukaldia zan lekuan zeuan, Juanj o eta Txaron, etxeko seme-alaben ezkutalekurik estimauenian bihurtuz.

Banketxiaren burdinazko hesiak be, kristalak kanpotik babestekuak, urtietan mantendu zian tabernia izan arren.

2005ian Jose Arronategi kargotu zan, 2023ko uztaileira arte, eta handik aurrera Elsa Arrietak daroiaz aurrera sukalde eta taberna kontuok.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



JUAN CARLOS MARTÍN

Umemokoak

"Komunikazio-estilo autoritarioa da, eta erabiltzen duenak uste du boterea duela gazteegizat hartzen dituen pertsonen gainerik"

Umemokoa: gazte harropuzta eta heldutasunik gabekoa. Hitz hau makina bat bider erabili da sare sozialetan azken hilabetean, euren eskubideen alde eta euren lankideekiko tratu-berdintasunaren alde borrokan ari diren kirolariei buruz hitz egiteko.

Baina zer dago hitz horren atzean? Ikuspuntu paternalistaren isla da, eta gehiago esaten du hitz hori erabiltzen ari denaz, hartzaileaz baino. Hau da, komunikazio-estilo autoritarioa da eta erabiltzen duenak uste du boterea duela gazteegizat hartzen dituen pertsonen gainerik, heldutasun falta dutenak, eta direnaz edota daukatenez harropuztuta daudenak. Errealitetik urrunago ezin egon.

Gaur egun hau da egoera: kirolari gazte batzuk (gehienek 20 urte inguru dituzte) zalantzan jartzen ari dira kirol-erakunde oso bat. Aintzatespena eta profesionalizazioa lortzen saiatzen ari dira, egungo neskek mutilek jada lan egin dezaketen lanbide batean aritzeko aukera izan dezaten.

Pertsona batzuen argudioek emakumeen kirola mespretxatzen dute, gizonen kirolak sortzen duen beste diru sortzen ez duela argudiatuz. Zer egingo dugu orduan? Deuseztatu "errentagarria ez delako"? Hori da honekin guztiarekin dirua irabazten dutenek ez dutena ulertzen: ez du zertan errentagarria izan.

Hemen diru asko dago jokoan. Jende asko bizi da hain maskulinizatuta dagoen mundu honetan: kazetariak, buruzagiak, kirolariak, entrenatzaileak, teknikariak... eta, noski, umemoko batzuk sistema zalantzan jartzera etortzeak beldurra ematen du. Beldurra, bai. Zentzugabeko beldurra, inork ez dituelako zalantzan jarriko soldata handiak, beharrezkoak ez diren gastuak, nahierara izendatutako karguak, ezta buruzagiek dirua zertan gastatzen duten ere. Euren helburua da oinarriak jartzea, kirol honetan jokatu nahi duten neska gazteek aurrera egin ahal izateko, lanbide "errentagarri" bat topatu behar izan gabe. Baina, jakina, umemoko hauek nor direla uste dute?

IGNACIO PÉREZ

Ermuarra, 1968ko uztailaren 31n jaioa, San Inazio egunean. Gurasoak Extremaduratik etorri ziren 60. hamarkadan. Hiru anaien artean, erdikoa. Ermuarra du bikotekidea ere. 2009an bederatzirteko semea galdu zuen auto-istripuz.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

San Pelaion bizi nintzen, eta auzoko lagunak ziren nire bizitzaren ardatza. Bertako zelaietan ibiltzen ginen kaniketan jolasten, futbolean, burdinekin... Ongaraiokoein eta Zearkalekoein borroketan ibiltzen ginen.

Eta gaztaroa?

Orduko parrandak ditut gogoan, tabernak jendez gainezka zeudenean, eta betiko lagunekin daukat harremana oraindik. Santixauetako lehen playback lehiaketan parte hartu nuen ere, The Blues Brothersekin kanta batekin, eta bigarren postuan geratu ginen.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Félix Rodríguez de la Fuenteren garaikoa naiz, eta albaitaria edo naturalista izan nahi nuen. Marrazkilaria ere, nahiz eta ez nuen oso ondo marrazten.

Ikasteko aukerarik izan zenuen?

Institutua bukatutakoan utzi nuen, lana topatu nuen-eta.

Zein izan zen zure lehen lana?

Patxi tabernan egon nintzen zerbitzari, eta Guria zine ohian arduradun (Ateneoan).

Zertan egiten duzu lan egun?

El Correo egunkariko argazkilaria naiz 1988tik.

Nolatan hasi zinen bertan?

Josu Cruz ermuarrak Ermuko atala idazten zuen, eta udan elkarrizketa bat egin zidan zinearen inguruan. Oporretan joan zenean,



SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL Y BAJOS PAGO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMÍK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

SAN PELAYO
odontologia + zuzen ikuspegi

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI - Dra. I. IZUA

PADI
Programa
Ayuda Dental
Infancia
Gobernno Vasco

943 17 04 04
info@odontologiasanpelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48100 Ermua (Bizkaia)

haren ordezkapena egitea eskaini zidaten, eta gero argazkiak egiten hasi nintzen. Garai hartan argazkiak errebelatu egin behar ziren, eta Bilbora eskuz eraman. Konturatu orduko inguruko herri guztietako argazkiak ateratzen nengibilen!

Argazkigintzako ikasketak dituzu?

Erabat autodidakta izan nintzen, baina hainbat mintegitan eta ikastarotan parte hartu nuen gero, eta Gradu bat egin nuen Valentzian.

Bilbo aldetik zabilta orain...

Bai. Egun berean laupabost herritan egon naiteke, gai ezberdinen inguruko irudiak egiten.

Argazki bakoitza erronka da?

Bai, gaiaren esentzia irudi batean jaso behar duzulako.

Zenbat argazki-kamera dituzu?

Bi kamera eta bost objektibo ditut. Hamaika kamera izan ditut, eta nire gustukoena Nikon FM2-a zen.

Zeintzuk dira argazkilari baten beste "erremintak"?

Enpatia ezinbestekoa da, jendearen konfiantza zureganatzeko. Horrez gain, azal lodia behar da: hobe barkamena eskatzea, baimena baino.

Asko bidaiatu duzu lanari esker?

Bai, Athleticekin, esaterako, Espainia eta Europa osoan ibili naiz, Errusian, AEBetan, Alpeetan...

Erretratatuak pertsonaiaren bat aipatu beharko bazenu...

Duela urtebete elkarrizketa egin genion Pedro Sánchezi Moncloan, eta harritu ninduen ze punturaino zegoen dena neurtuta. Horrez gain, Donostiako Zinemaldian ospe handiko aktoreekin egon naiz. Hala ere, jende arruntaren istorioak dira hunkitzen nautenak. Mota eta egoera guztietako pertsonak. Haiek protagonista duten erreportajeak dira nire gustukoena, jende xumearenak. Istorio zoragarriak izaten dituzte!

Zer da lanaz gutxien gustatzen zaizuna?

"Jende xumearen erreportajeak dira nire gustukoena, istorio zoragarriak izaten dituzte"

"Bizitzak une gozoak eta gaziak ditu. Bizitza ez da Instagram"

Azkenaldian sentitzen dut lan errepikakorra egiten ari naizela, gauza berriak botatzen ditut faltan.

Zer egiten duzu aisialdian?

Lasai egon: lagunekin eta bikotekidearekin egoteko denboraz gozatu, kostaldera joan eta, eta ahal dudan guztietan, zinean pelikula bat ikusi.

Non ezagutu zenuen bikotekidea?

Zinean lan egiten nuenean, belarritako bat galdu zuela eta hasi ginen hitz egiten. Gero, Ermuko Ostarku argazkilaritza taldean kointziditu genuen.

Semearen heriotza...

Ikaragarria izan zen.

Kostatzen zaizu hari buruz hitz egitea?

Ez, egunero daukat presente, eta hitz egiteak egoerari aurre egiten laguntzen dit. Heriotza ezberdin ikusten dut ordutik, gertuago, naturalago.

Gure gizartean, heriotza gai deserosoa da?

Bai, baina heriotzaz hitz egin behar da, bizitzak une gozoak eta gaziak dituelako. Bizitza ez da Instagram.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik eta zerk barrea eragin?

Prepotentziak sumintzen nau, eta umore absurdoarekin gozatzen dut.

Zure bertute bat?

Jendearekin harremana. Oso lagunkoia naiz.

Eta akatsa?

Antsietate handiko pertsona naiz.

Biziorik...

Ezinbestekoa dut Buenos Aires tabernan kafe bat hartzea. Eta eguzkia. Beroa eta eguzkia atsegin ditut.

Bizitzako egunik zoriontsuena?

Semea jaio zen eguna.

Zer irakurri nahiko zenuke egunkarietan?

Pobreziarekin edota klima-aldaketarekin lotura duten albiste positiboak, egoera gero eta okerragoa baita.

Drogeteniturrri aldizkariaren sorreran izan zinen...

Bai. Ordu asko eman nituen Iñaki Arregirekin lanean, eta proiektu izugarri polita izan zen.



Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44



NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA
San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

1968

E R M U A

Maribel Markinaren solteratako despedida Eibarren ospatu zuten lagunartean irailaren 25ean, eta bi egunetara ezkondu zen Ermuan Lázaro Cuadradorekin. Ezkerretik eskumara daude, tente Mari Tere Gorrotxategi, Ane Miren Mirandona, Conchi Uriarte, Lucia Areitioaurtena eta Charo Mugika. Jarrita, Charo Izarra, M^a Esther Aldalur, Maribel Markina bera, Juana Mari Zumelaga eta Merche Lejardi.



1982

M A L L A B I A

Argazki honetan Mallabiko Eskolako umeak ageri dira, Egoarbitzara txangoa egin zuten egun batean. Behetik gora eta ezkerretik eskuinera: Valen Pradera, Jose Alberto Martinez, Goreti Pradera, Maite Leanizbarrutia, Arrate Carrillo, Ceci Solozabal, Josune Txakartegi, Jose Luis telleria, Ana Muñoz, Isma Pradera, Miguel Vila, Iñaki Carrillo, Aintzane Arregi, Alicia Villate eta Manu Riaño.



IRAGARKI LABURRAK

Odontolog@ orokorra behar dugu gure Ermuko hortz klinikako lan taldean. Endodontzia eta odontopediatrian esperientzia baloratuko dugu eta esperientzia gabekoak baita ere. Mesedez bidali CV: niklinika@gmail.com helbidera.

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko, goizez zein arratsalde. Esperientziarekin eta magisteritza ikasketekin. © 648 625 209.

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua. © 685 584 587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat © 688 683 655.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika © 626 514 969



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Urriaren 20a**.



Abuztuaren 31n Zorionak **Lier** zure 8. urtebetetzean. Amama eta aititeren partez, eta Lander eta Noraren partez. Musu bat.



Abuztuaren 14an Zorionak **Ekhia!!!** Orain dela 3 urte heldu zinen gure bizitza ederragoa egitera. Besarkada handi bat ama, aita eta Luaren partez. Asko maite zaitugu!!



Irailaren 25ean Zorionak **Ainere!** Dagoeneko 10 urte handi bete dituzu. Segi beti bezain alai eta maitagarri. Patxo erraldoi bat familia guztiaren partez. Maite zaitugu.

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEREN EGINDAKO TXORIZO ODOLOSTE ETA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170565
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai.com
arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell
arrai@arrai97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

FAMILIA
LUIS CAÑAS
BODEGAS Y VINO
nitida
Manzanos Wines
Pemord Ricard Wines
Faustino García Martínez.
T.943176075

RIF
ITURGINTZA KONPONKETAK
Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

Hilaren 1ean eta 2an:
"Mi soledad tiene alas" +
"Las Cícladas. Escapada de amigas"
Hilaren 7tik 9ra:
"Oppenheimer"
Hilaren 14tik 16ra:
"Passages" + "Verano en rojo"
Hilaren 21etik 23ra:
"Misterio en Venecia" +
"Todos los nombres de Dios"
Hilaren 28tik 30era:
"El cuco" + "Golpe de suerte"
Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 5:
"El sol del futuro"
Hilak 12:
"Creatura"
Hilak 19:
"Carajita"
Hilak 26:
"Monstruo"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 1:
"Elemental"
Hilak 8:
"El colegio de los animales mágicos 2"
Hilak 15:
"Abentura erraldoia"

Hilak 22:
"Richard la cigüeña y la joya perdida"
Hilak 29:
"La patrulla canina. La superpelícula"
Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 7:
Rock jaialdia: Bertsio gaua.
20:00etan. Orbe Kardinalaren plazan.
Hilak 20:
Kontzertua: Ángel Stanich.
20:30ean. Ermua Antzokian.
Sarrera: 12 €
Hilak 21:
Soul blues kontzertua: The Four Breakers. 20.00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 10 €

ANTZERKIA

Hilak 6:
Humor: "La nueva normalidad", Alex Claverorekin. 20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €

ERAKUSKETA

Hilaren 16tik 29ra:
Mikologiari buruzko argazki lehiakatera aurkeztutako lanak. Lobiano Kulturgunean.

HAURRENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 6:
Antzerkia: "El viaje de Lupe y Pancho", Sin Fin Konpainairen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4 €
Hilak 14:
Ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.
Hilak 20:
Jolasak: Barixakuetan. 16:30ean. San Lorenzo ikastetxeko patioan.
Hilak 21:
Musikala: "Esna zaitez", Kantu Kolore taldearen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4 €



Hilak 27:
Jolasak: Barixakuetan. 17:00etan. San Pelai plazan.
Hilak 28:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

BESTELAKOAK

Hilaren 8ra arte:
Gaztela-Leoneko Zentroaren kultur astea: hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan eta Patakonia zeharbidean.
Hilaren 17tik 28ra:
Nagusien Nazioarteko Egunaren Jardunaldiak: hainbat ekitaldi.
Hilaren 18tik 22ra:
Andaluziako Zentruaren kultur astea: hainbat ekitaldi. San Pelai plazan eta Andaluziako Zentroan.
Hilaren 19tik 22ra:
Mikologiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Lobiano Kulturgunean eta Orbe Kardinalaren plazan.
Hilak 27:
Bertso jaialdia: Onintza Enbeita, Saioa Alkaiza, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €
Hilak 31:
Gau beltza: Haurrentzako disko festa (17:30ean) eta Kluedo (22:00etan).

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412


PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Valle
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA
ELECTRICIDAD BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
· Proiektuak
· Instalazioak
· Erreformak
· Berokuntza
· Gaueko tarifa
· Erradiadore elektrikoak
Diputazioa 11, behea
ERMUA
943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



æk euskara
praktikoa

**euskara
hurbil,
zu urrun heltzeko**

Kaltxango AEK euskaltegia

Euskalduntzea

C2 aurrez aurre

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Berbalagun

Txandaka aritzeko aukera

%100era arteko dirulaguntzak

Zearkale 16

943 17 19 40 · 607 623 961 · kaltxango@æk.eus



DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
maila egiaztatuz gero.

**ERMUKO ETA MALLABIKO
UDALAK**

- | | | |
|---|---|---|
|  Aurrez aurreko eskolak |  Mintzapraktika |  Barnetegiak |
|  Autoikaskuntza |  Online |  aizu! aldizkaria |
|  Normalizazio-planak |  Itzulpenak-Zuzenketak | |

Eman izena

- HABEk homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

HABEk diruz lagundua

HADE



www.aek.eus

673 200 100 · 946 464 000

